

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUAK

I. TITULUA

AKORDIO OROKORRAK.

1. Artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena

FUNDACIÓN “ATHLETIC CLUB”/ “ATHLETIC CLUB” FUNDAZIOA izenarekin sortua, 12/1994 legearen arabera, ekainaren 17koa, eta indarreko beste araudi batzuen arabera.

FUNDACIÓN “ATHLETIC CLUB”/“ATHLETIC CLUB” FUNDAZIOA irabazi asmorik gabeko erakundea da. Bere sortzaileen borondatez, ondarea interes orokorreko helburuak betetzera bideratuta dago, modu egonkorrean. Helburu horiek Estatutu hauen 3. Artikuluan azaldu dira.

2. Artikulua.- Erregimen juridikoa, nortasuna eta gaitasun juridikoa

Fundazioak izaera juridiko propioa eta independentea dauka Fundazioen Erregistroan eskritura egin zenetik, eta jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridiko osoa izango ditu, sortzaileak eraketa ekitaldian, estatutu hauetan edo aplikatzen diren legeetan ezarritako mugak besterik ez dituela, batez ere, 12/1994 Legean ezarritakoari dagokionez, ekainaren 17koa, Euskadiko Fundazioen ingurukoa.

Ondorioz, eta protektoratuari egindako jakinarazpenei kalterik egin gabe, edozein ondasun higiezin edo higigarri eta eskubideak lortu, mantendu, jabetzan izan, erabili, besterendu eta zorpetu ahal izango ditu; edozein ekintza edo kontratu mota egin; maileguak jaso eta ordaindu; bide judiziala edo gobernu organoaren irizpena onartu edo egin, epaitegi, Epaimahai eta Organismo publiko eta pribatuen aurrean edozein motatako ekintzak gauzatzuz, ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak.

FUNDACIÓN “ATHLETIC CLUB”/“ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN helburu nagusia kirol, kultur eta gizarte arloko jardueren zabalkundea eta sustapena da.

Hori horrela izanik, adierazpen izaera huts eta ez mugatzailearekin, ulertzen da honako helburuak ere sartzen direla fundazioaren asmoen barruan:

- a) Kultur, kirol, arte edo ongintza arloko edozein erakunderekiko elkarlana eta lankidetzeta, egoki ikusten bada eta fundazioaren helburuetarako lagungarria izan badaiteke.
- b) Kirola gizarte osora hedatzea, kategoria eta adin guztietan sustatuz.
- c) Gazteen artean kirola zabaldu eta sustatzea. Horretarako, kirola eta gazteen prestakuntza integrala eskutik joatea da egokiena, eta hori ere bideratu nahi da.
- d) Kirolarien prestakuntza, batez ere futbolariena. Horretarako, harrobiari laguntza emango zaio: ikasketa-zentro eta eskolak sortu, finantzatu eta kudeatuko dira, oinarri-kirola eta zaletasuna bultzatzeko, dagozkien euskal fundazioekin bat egiteko asmoz.
- e) Zerbitzu edota instalazioen sustapen, mantenimendu edota zerbitzuen kudeaketa egitea, kirolarien, kirolaren eta gizarte osoaren beharrezan araberako kirol jarduera bideratzeko.
- f) Ekitaldi sozialak, zibikoak eta solidarioak, edozein arrazoirengatik bazterkeria egoeran dauden pertsonen integrazioa bideratuta, eta, orokorrean, gizarte ekintza sustatzea.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Helburu horien barruan, jarduera zehatz eta garrantzitsuenak izango dira honakoak:

- 1) Kirolarien Garapenerako Zentro bat sortu eta garatzea, prestakuntza, arreta medikoa eta abar jasotzeko.
- 2) Aukera ekonomiko baxuak dituzten kirolari gazteentzako bekak edota laguntza kudeatzeko programak, horrela, edozein ikasketa burutzeko aukera izango dute.
- 3) Hitzaldiak, ikastaroak, mintegiak eta abar antolatzea. Futbolaren irakaskuntza eta praktikara, eta lehiakortasun eta kirol espiritu osasungarrira bideratuak.
- 4) Kirol txapelketa eta lehiaketak, sariak, eta adin eta kategoria guztietako futbolarien parte-hartzea sustatzeko xedea dutenak.
- 5) Aldizkariak, artikuluak, prentsa oharrak eta abar editatu eta argitaratzea. Fundazioak garatutako jarduerekin erlazionatuak.
- 6) Museo eta bestelako kultur erakundeak sortu, sustatu eta kudeatzea, baita erakusketa-gelak, liburutegiak, artxiboak eta fundazioaren helburuekin bat datozen bestelako instalazioak ere.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

- 7) Besteren finantza-baliabideak lortzea, hala nola dohaintzak, laguntzak, diru-laguntzak, ekarpenak eta abar, fundazioaren helburuen garapenerako.
- 8) Fundazioaren helburuekin erlazionatutako jarduerak ahalik eta ondoen betetzeko errendimenduak aplikatzeko aktibo guztiak ustiatzea.
- 9) Fundazioaren barruan “Athletic Gizarte Ekintza” izeneko atala sortzea, ekintza sozial, zibiko eta solidarioetara bideratutako baliabide ekonomiko eta pertsonalak kudeatzeko.
- 10) Fundazioaren berezko helburuak lortzen lagun dezaketen bestelakoak.

4. Artikulua.- Helburuen garapena

Fundazioaren helburuak Fundazioak berak garatu ditzake egoki ikusten duen moduan. Beste erakunde batzuetan parte har dezake, esaterako, Estatutu hauetan jasotako edota legeetan markatutako mugak besterik ez ditu izango.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

5. Artikulua.- Helbidea

Fundazioak Bilbon dauka helbidea, Ibaigane Jauregia, Mazarredo zumardia 23.

Patronatuak libreki erabaki ahal izango du udalerrri berean helbide aldaketa egitea, gehiengo arruntaren bidez. Edonola ere, Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko da.

Era berean, Patronatuak eskumena izango du ordezkaritza-egoitzak eta bulegoak zeintzuk diren zehazteko, betiere, fundazio-helburuak betetze aldera.

6. Artikulua.- Lurralde eremua

Fundazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatuko ditu jarduerak, batez ere, baina izaera unibertsala izango du, eta Euskal Autonomia Erkidego osoari eskainiko zaio arreta.

7. Artikulua.- Onuradunak

1.- Fundazioaren prestazioen onuradun izango dira, Patronatuaren irizpideen arabera, hala merezi dutenak.

Patronatuak askatasun osoa izango du fundazio-helburuetarako baliabideak aplikatzeko, betiere, ondarearen emaitzen arabera, Legeak agindutakoaren barruan, urteko edo urteetako jarduera-programa edo aurrekontuekin bat etorrira.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

2.- Inork ezin izango du bere onuradunadunen aldeko eskubiderik alegatu Fundazioaren aurrean edo Patronatuaren aurrean, horiek eman aurretik, ezta atribuzioa pertsona zehatzei inposatu ere.

3.- Edonola ere, Fundazioak inpartzialtasunez jokatu behar du, eta diskriminaziorik gabe, onuradunak zehazteko orduan.

Fundazioak objektiboa eta inpartziala izan beharko du onuradunen hautaketan. Ezin izango da inolako diskriminaziorik egin. Zentzu horretan, onuradun izan daitezke artikuluko honetan izendatutako pertsona juridiko eta fisiko guztiak.

Fundazioak onuradunei zerbitzuengatik kopururen bat ordaintzeko eskatzean, dagokion kopurua soilik ordainduko beharko da. Era berean, Fundazioaren berezko arrazoiak direla eta erabakitzen bada onuradun kopurua mugatzea, horien hautaketa eta zehaztapena Fundazioaren Patronatuak egingo du, kontuan izanda hautagai bakoitzaren meritua, beharrianak, gaitasun ekonomikoa eta bestelakoak, edota ezaugarri objektiboen arabera. Edonola ere, inork ezin izango du alegatu, ez banaka, ezta modu kolektiboan ere, Fundazioaren edo bere organoen aurrean, onuradun horien eskubiderik, horiek eman aurretik, ezta atribuzioa pertsona zehatzei esleitu ere.

8. Artikulua.- Publizitatea

Fundazioaren jardueren berri eman eta onuradun eta interesdunek horiek ezagutu ahal izateko, Patronatuak behar den moduko publizitatea egingo du.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

II. TITULUA

PATRONATUA

1. Kapituluak.- Osaera eta eskumenak

9. Artikulua.- Patronatua

Patronatua Fundazioko gobernu, administrazio eta ordezkari organo gorena da. Fundazio-helburuak lortzeko kudeaketaren gaineko zuzendaritza eta kontrol eskumenak bereak izango dira. Zehazki, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratuko ditu.

10. Artikulua.- Osaera, izendapena, karguaren iraupena eta postu hutsen estaldura.

Patronatuak gutxienez hiru kide eta gehienez ere hamabi kide izango ditu.

Patronatua osatuko dute pertsona fisiko zein juridikoen, izaera publiko edo pribatukoak. Nagusi izaera edukitzeko, pertsona juridikoen pertsona fisiko bat hautatu behar dute, karguaren berezko funtzioetan ordezkari moduan aritzeko. Pertsona juridiko bat berriz hautatuko balitz, aurretik izendatutako ordezkariak karguaren berezko funtzioak betetzen jarraituko du, lagapena berariaz gauzatu arte.

Nagusi izaera instituzio zehatz bateko kargu bat daukan pertsonari egotzi ahal zaio; horrek pertsona bat izendatu ahalko du bere izenean aritzeko, eta izendapen hori mugagabea izan daiteke denboran, edo epe jakin baterakoa, baina, edozelan ere, izendatzaileak libreki ordezkatu ahal izango du. Edonola ere, karguaren titularra den pertsona fisikoak Nagusi izaera izango du, ordezkatzeko duen erakundeak kargua daukan bitartean.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Lehenengo Patronatua fundazio-eskrituraren sortzaileak izendatuko du.

Nagusi karguaren iraupena izendapen-motaren arabera izango da; sortzaileak hautatu duen edo bozketa bidez hautatu den.

Sortzaileak izendatutako Nagusiak ezin izango ditu Patronatuak kargutik kendu edo kargua eten, eta karguaren iraupena mugagabea izango da, Sortzaileak baliogabetu arte.

Patronatuak edozein unetan izendatu edo kendu ditzake kargutik hautaketa bidez izendatutako Nagusiak, eta bost urteko iraupena izango du karguak. Behin eta berriz berriztatu daiteke. Kargua iraungi egin dela ulertuko da, behin epea amaituta, Patronatuaren hurrengo bilera egiten denean.

Hautaketa bidez izendatutako Nagusien izendapen eta eteteak Patronatuak berak burutuko ditu. Kargua berariaz onartu beharko dute, Legearen 12. Artikuluan aurreikusitako formuletako baten bidez. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Sortzailearen bidez zein hautaketa bidez izendatutako Nagusiek kargua berariaz onartu beharko dute, Legearen 12. Artikuluan aurreikusitako formuletako baten bidez. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Heriotza, ezgaitasun, gaitasungabetze, baztertze edo bateraezintasun egoerarik egonez gero, agintaldia bukatu edo uko eginez gero, edo gobernu organo bateko kide bat ordeztu beharra dakarren edozein egoera sortuz gero, izendapenerako erabilitako prozedura bera erabiliko da; hau da, Sortzailearen izendapena edo Patronatuaren hautaketa. Kargua ezin izango da sei (6) hilabete baino gehiagoz hutsik egon.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Patronatuko kideek organo hori mantendu beharko dute, gutxienez Estatutu hauen 10. Artikuluan ezarritako kide kopuruarekin, akordioak baliagarriak izateko.

Patronatuko kideek izaera hori galdu ahal izango dute epaile batek hala erabakitzen badu, Estatutu hauen 20. artikuluan eta Legean aurreikusitako moduan kargua betetzen ez bada.

Gobernu organoko kideen ordezkapen, etete eta baliogabetzea Fundazioen Erregistroan jaso beharko da.

11. Artikulua.- Sortzaileak izendatutako, hautaketa bidezko eta Ohorezko Nagusiak.

Fundazioaren Patronatuko kide izango da “Athletic Club” erakundeko presidentea, Sortzaileak hala izendatuta.

Une bakoitzean Patronatua osatzen duten Nagusien erdiak Sortzaileak izendatuko ditu.

Sortzaileak izendatu ez dituen Nagusiak hautaketa bidez izendatuko dira, eta horien kopurua ezin izango da une bakoitzean Patronatua osatzen duten Nagusien erdia baino handiagoa izan. Hautaketa bidezko Nagusiek Fundazioak antolatutako jardueretik lotura bat erakutsi beharko dute, Patronatuaren irizpideen arabera, eta karguan dauden bitartean jarduera horien aldeko jarrera mantendu beharko dute.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZUIAREN ESTATUTUAK

Patronatuak Ohorezko Presidente bat edo gehiago eta Ohorezko Nagusiak izendatu beharko ditu. Horiek ohorezko bazkideak izango dira, eta Patronatuaren bileretara joan ahal izango dira, baina boto eskubiderik gabe. Era berean, lehentasuna izango dute Fundazioak parte hartzen duen jarduera guztietara bertaratzeko.

12. Artikulua.- Doakotasuna

Patronatuko kideek doakotasunez garatu ahal izango dute beren kargua. Hala ere, beren funtzioen ondorioz sortu ahal zaizkien gastuak ordainduko zaizkie, behar den moduan justifikatuz gero.

13. Artikulua.- Fundazioko Presidentea.

Patronatuak bere bazkideen artetik hautatuko du Presidentea. Horren egitekoa izango da Patronatuari deialdia luzatzea, bere izenean, edo kideen heren batek hala eskatuta, baita erabakiak hartu eta akordioak betearaztea ere.

Patronatuko Presidenteak gobernu organoaren kargurik altuena izango du. Gainera, organo horretako kide gisa dagozkion eskumenez eta Estatutuen bidez emandakoez gain, Fundazioaren ordezkari izango da Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen akordioen ondoriozko ekintza eta kontratuetan eta edozein auzi edo gatazka judizial edo ez judizialetan. Prokuradore edo Abokatuen aldeko auzietarako eskumen orokorrak eman ahal izango ditu.

14. Artikulua.- Presidenteordea

Patronatuak presidenteorde bat hautatu ahal izango du kideen artetik, eta kideen gehiengo botoaren bidez hautatuko da. Presidenteordeak presidente ordezkatuko du hori gaixorik badago edo kanpoan bada. Ordezkapen hori egiaztatzeko nahikoa izango da haien adierazpena. Presidente edo presidenteordea ez badago, adinez nagusiagoa den kide batek ordezkatuko du.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

15. Artikulua.- Idazkaria.

Nagusiak idazkari bat izendatu ahal izango du bere kideen artetik. Horren egitekoa izango da Fundazioaren administrazio lanak burutzea, dokumentazioa zaintzea eta bileretan akta jasotzea. Gerora, horiek Akta Liburura pasako dira, behin onartuta eta Presidenteak onetsita.

16. Artikulua.- Diruzaina

Patronatuak bazkideen artetik Diruzain bat aukeratu ahal izango du, Patronatuak egotzitako funtzioekin.

Honako funtzioak egotziko zaizkio diruzainari:

- 1.- Fundazioaren fondoak bildu eta zaintzea.
- 2.-Diru-sarrera eta gastuen Kontuaren aurkezpena eta balantzea sinatzea.
- 3.- Inbentario-liburuak, kontuak, aurrekontuak eta Egunerokoa kudeatzea.

17. Artikulua.- Fundazioarentzat aritzen diren langileak

Era berean, Patronatuak Gobernu batzordeko kideren bati edo hirugarren bati eman ahal izango dizkio jardueren garapen edo kudeaketa, funtzio horien araberako ordainsari egokiarekin.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

18. Artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumena Fundazioaren gobernuari dagokion guztira hedatzen da, bereziki, honakoetara:

- 1.- Fundazioaren orientazioa adieraztea, helburuak hobeto betetzeko.
- 2.- Ekonomia eta finantza baliabide guztiak administratzea.
- 3.- Inbentarioa, Egoera balantzea, Emaizten Kontua, aurreko ekitaldiko Memoria eta uneko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen Aurrekontuaren likidazioa onartzea.
- 4.- Hurrengo ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen Aurrekontua onartzea, baita azalpen memoria ere.
- 5.- Dagozkion barne erregimeneko arauak onartzea.
- 6.- Batzorde Ordezkatuak sortzea, kideak izendatzea eta gaitasunak zehaztu eta ahalduntze orokor eta bereziak burutzea, hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 7.- Zuzendaritza karguak, exekutibo eta aholkulariak izendatzea, eta beharrezko diren gainerako teknikariak, administrari eta langileak kontratatzea, Estatutuen 17. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- 8.- Fundazioaren helburuen arabera egokiak diren ekitaldi eta kontratuak formalizatu eta onartzea, izan zibilak, merkataritza edo lan arlokoak, administratiboak edo beste mota batekoak.
- 9.- Dagozkion proposamenak organismo eskudunei helaraztea, goi mailako akordioaren bat behar duten gaietarako.
- 10.- Enpresa, organismo edo partikularren parte-hartzea sustatzea kooperazio teknikoko eta prestakuntza arloko programetan, lankidetzak-hitzarmen eta fondoek ekarpenen bidez.
- 11.- Herentzia, legatu edota dohaintzak onartu edo uko egitea, Fundazioarentzako onena den erabakia hartuz, betiere, eta Protektoratuari jakinaraziz.
- 12.- Fundazioaren Estatutuak aldatzea, sortzailearen borondatea betearazteko egokia bada.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

19. Artikulua.- Ordezkaritzak, ahalduntzea eta Batzorde Ordezkatuak

Patronatuak kideetako bati edo batzuei eskuordetu ahal izango dizkie beren eskumenak, salbuespen hauekin: kontu eta aurrekontuen onarpena, kudeaketa arruntekoak ez diren ekintzak edo Protektoratuaren baimena behar dutenak.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugak kontuan izanda, Patronatuak Batzorde Ordezkatu eta Betearazleak eratu ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehazten diren gaitasunekin. Gainera, ahaldun nagusi edo bereziak izendatu ahal izango ditu, funtzio mankomunatu edo solidarioekin.

Ordezkaritza eta ahalduntze orokorrak, auzietarako izan ezik, eta horien ezeztatzeak Fundazioen Erregistroan jaso beharko dira.

20. Artikulua – Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Fundazio-helburuak bete eta betearaztea, Fundazioaren Estatutuetan eta Legean aurreikusitakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzea eta horien produktibitatea mantentzea, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua leialtasunez betetzea.

21. Artikulua.- Autokontratazioaren debekua

Patronatuko kideek ezin izango dute Fundazioarekin kontratatu, izan bere izenean zein hirugarren baten izenean, Protektoratuaren baimenik gabe.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

22. Artikulua.- Erantzukizuna

- 1.- Patronatuko kideek erantzukizuna izango dute Fundazioaren aurrean, Legeetan zehaztutako terminoen arabera.
2. Ez dute erantzukizunik edukiko horren inguruko akordioaren aurka azaldutakoek edota akordio hori adosten parte hartu ez dutenek, ez bada frogatzen horren berri bazutela eta ez zirela aurka azaldu.
- 3.- Jurisdikzio arruntaren bidez gobernu organoei erantzukizuna eskatzeko ekintzaren bat burutuz gero, hori eta horren ondoriozko epai irmoa Fundazioaren Erregistroan jasoko dira.
- 4.- Protektoratuak, bere ekimenez, edo interes legitimoren bat daukatenez hala eskatuta, erantzukizun ekintza hori burutu ahal izango du. Sortzaileak ere gauzatu ahal izango du, Patronatuko kideen ekintza fundazio-helburuen aurkakoa denean.

2. Kapituluak.- Patronatuaren funtzionamendu-erregimena

23. Artikulua.- Barne-funtzionamendua

Patronatua Fundazioaren egoitzan batzartuko da, gutxienez, urtean bitan, eta fundazioaren funtzionamendu egokia mantentzeko beharrezkoa den beste alditan.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Ekitaldi sozial bakoitza bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan, derrigorrez bildu beharko da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jarduera-memoria eta aurreko ekitaldiko egoera balantzea eta emaitzen kontua onartzeko, Estatutu hauen 30. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Era berean, urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoan, dagokion deialdiaren aurretik, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartuko da, Azalpen Memoriarekin batera, ekainaren 30a baino lehen protektoratuari bidaltzeko.

Patronatuko deialdiak idatziz egin beharko dira, gutxienez bileraren data baino hamar **(10) egun lehenago**, urgentzia kasuetan izan ezik. Azken horietarako, epea hiru (3) egunera murriztuko da, eta jasotzea egiaztatzen duen baliabideren bat erabiliko da. Deialdian bileraren eguna, data eta ordua zein izango diren adierazi beharko da, baita Presidenteak adostutako gai-ordena ere. Presidenteak kontuan izan beharko ditu gobernu-organoko kideen iradokizunak.

24. Artikulua.- Eraketa eta akordioak hartzea.

Patronatua lehenengo deialdian eratuta geratuko da kideen erdia gehi bat bertaratu bada, pertsonalki edo ordezkari bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitako quorumera heltzen ez bada, Patronatua ordubetera bilduko da. Bigarren bilera horretan nahikoa izango da kideen herena bertaratzearekin; hori bai, Presidente edo Presidenteorde titularrak egon beharko dira horien artean.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoari kalterik egin gabe, Patronatua eratutzat joko da kide guztiak bertan daudenean eta aho batez bilera egitea erabakitzen dutenean.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Akordioak botoen gehiengoaren bidez hartuko dira, ez bada egoera hauetakoren bat:

1.- Kideen bi herenen aldeko botoa eskatzen duten akordioak: aldaketa, fusioa eta deuseztatzeari buruzkoak.

2.- Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera bozketa quorum desberdinak ezarrita dituzten egoerak.

Presidentearen botoak berdinketak hautsiko ditu.

Patronatuaren bilera bakoitzeko dagokion akta jasoko da. Bertan, eguna eta lekua adieraziko da, bertaratuak nortzuk izan diren eta zein izan den eztabaida-gaia eta akordioen edukia. Bertaratutako guztiek onartu beharko dute akta, eta dagokion liburuan transkribatuko da, Idazkariak sinatua eta Presidenteak onetsia.

III. TITULUA

ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

I. Kapituluak.- Eraketa, administrazioa eta zaintza

25. Artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea balorazio ekonomikoa eduki dezaketen eskubide eta ondasun anitzez osatua dago.

Fundazioak arau aplikagarrien arabera egokituko ditu bere ekintzak, eta errenta edo emaitzak bere helburuetara bideratuko ditu, Estatutu hauetan jasotakoaren arabera.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

26. artikulua.- Baliabideak

Fundazioaren ondarea honakoek osatzen dute:

- a) Fundazio-eskrituran jasotako hasierako hornidura.
- a) Erakunde Sortzaileak, Nagusiek, Atxikitako Laguntzaileek eta Ohorezko Laguntzaileek egindako ekarpen eta kuotak eta beste pertsona batzuek Fundazioari egindako bestelako ohiko edo ezohiko ekarpenak.
- a) Zuzenbidearen arabera onartutako beste edozein eskubide edo ondasun; bereziki, beste pertsona, organismo edota erakundeek emandako legatu, dohaintza, ekarpen eta diru-laguntzei dagokienez. Dohaintza, legatu eta herentziak onartzearen berri eman beharko zaio Protektoratuari.
- a) Fundazioak burutzen dituen jardueren eta ondarearen onurak, produktuak, emaitza edo errentak, edota eman ditzakeen zerbitzuengatik ordainsariak, indarreko legeriaren arabera.
- a) Beste edozein baliabide, aplikazioaren legezko esparruaren barruan.

27. Artikulua.- Ondarearen alterazioak

Fundazioaren patronatuak egoki irizten dituen aldaketa, eraldaketa edo konbertsioak egin ahal izango ditu Fundazioaren kapitalaren gainean, behar beste aldiz, egoera ekonomikoaren arabera. Helburua beti izango da kapitalaren balio efektiboa edo erosketa-ahalmena murriztea.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

28. Artikulua.-Fundazioaren ondarea zaintzea

Fundazioaren ondarea zaindu eta mantentzeari dagokionez, honako arauak hartuko dira kontuan:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondare eta eskubideak Fundazioaren izenean egon beharko dira, inbentarioan jasota eta dagozkion Erregistroetan inskribatuta, hala badagokio.
- b) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Fundazioaren izenean jarriko dira, Jabetzaren Erregistroan. Inskribatu beharreko gainerako ondasunak dagokion erregistroetan jasoko dira.
- c) Baloreak eta esku-dirua, jabetza tituluak, gordailu frogagiriak eta jabetza, erabilera, domeinua edo Fundazioaren bestelako eskubideren bat egiaztatzen duten dokumentuak Patronatuak zehaztutako erakundean gordeko dira, Fundazioaren izenean.
- d) Gainerako ondasunak Patronatuak zehaztu bezala gordeko dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira. Patronatuko Idazkariaren kargu egongo dira liburu horiek, eta berak ikuskatuko ditu. Horrela izanik, ondo identifikatzeko zirkunstantzia eta azalpen guztiak jasoko dira.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

II. Kapituluak.- Erregimen ekonomikoa

29. Artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n bukatuko da.

Fundazioak ohiko aurrekontua egingo du ekitaldiaren azken hiruhilekoan, hurrengo ekitaldirako. Aurrekontu horretan diru-sarrerak eta gastuak modu orekatuan jasoko dira.

Aurrekontu hori Protektoratuari aurkeztuko zaio onartutako ekitaldi ekonomikoen azken hiruhilekoan, Azalpen-memoriarekin batera.

30. Artikulua.-Ekonomia eta kontuen inguruko betebeharrak

Patronatuak inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitzen kontua egingo ditu, eta horietan jasota geratuko da Fundazioaren ondare-egoera, egoera ekonomikoa eta urtean zehar burututako jardueren inguruko memoria, eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa. Hori nahikoa izan beharko da fundazio-helburuak eta legean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko. Aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen likidazioa ere egingo da. Horretarako, Legean ezarritakoa beteko da.

31. Artikulua.- Kontuak ematea

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan, Patronatuak Protektoratuari egiaztatu beharko dio, betiere, Fundazioen Legearen 27. artikuluen arabera, bere kudeaketa lana fundazio-helburuen arabera izan dela.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

III. Kapituluak.- Baliabideak fundazio-helburuetara bideratzeko arauak

32. Artikulua.- *Diru-sarrera eta administrazio gastuen xedea*

- 1.- Ulertuko da Fundazioaren ondasun eta errentak fundazio-helburuak betetzera bideratuta daudela, zuzenean.
- 2.- Fundazioak aldian-aldian programatuko ditu bere xedearen arabera jarduerak. Horretarako, prestazioen plangintza egingo da urtero, eta hori burutu eta esleitzeko modua adostuko da.
- 3.- Patronatuak libreki zehaztu eta erabakiko du, egokien irizten dion moduan, Fundazioak garatuko duen jarduera-programa, hori guztia Legearen arabera, eta kasu bakoitzean onartutako aurrekontuen arabera.

IV. Kapituluak.- Kontuak egiaztatzea

33. Artikulua.- *Kontu-ikuskaritza*

Fundazioaren ezaugarriak direla eta, Fundazioak kanpo ikuskaritza bat egin beharko du, kontuak ikuskatzeko.

Kontu-ikuskarien txostenak honakoak jaso beharko ditu:

- a) Kontabilitatearen eta urteko kontuen bidez frogatutako lege araudi edo estatutuen gainean gerta daitezkeen arau-haustekak.
- b) Onartutako edozein gertaeraren inguruko oharra, Fundazioaren finantza-egoerarako arrisku bat direnean.

Ikuskarien txostena Fundazioen Erregistroan jaso beharko da, horri buruzko kontuekin batera.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

IV. TITULUA

ALDAKETA, FUSIOA ETA DESEGITEA

34. Artikulua.- Aldaketa

Fundazioaren Patronatuak Estatutu hauen aldaketa egin ahal izango du, betiere, fundazio-helburuak betetzeko egokia badela irizten badio. Aldaketa egiteko kideen bi herenen aldeko botoa lortu beharko da, gutxienez. Gainera, edonola ere, sortzailearen aldeko botoa izan beharko da.

35. Artikulua.- Fusioa

Patronatuak beste erakunde batekin edo batzuekin fusionatzea erabaki ahal izango du, betiere, fundazio-xedearen mesedetan. Akordioa hartzeko kideen bi herenen aldeko botoa lortu beharko da, gutxienez. Gainera, edonola ere, sortzailearen aldeko botoa izan beharko da.

36. Artikulua.- Desegitea

Fundazioa desegin egingo da:

1.- Estatutuetan aurreikusitako egoera berezi moduan, “Athletic Club” erakundea desegiten denean, Kirol Klub gisa edo beste edozein forma juridiko gisa.

2.- Kode Zibilaren 39. artikuluan edo beste legeren batean aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIAOREN ESTATUTUAK

3.- Fusio prozesu baten ondorioz.

4.- Ebazpen judizial irmo baten bidez ebazten denean.

Aurreko artikulua 1. eta 2. ataletan aurreikusitako kasuetan, Fundazioa desegiteko, Patronatua ados jarri beharko da. Edonola ere, sortzailea alde egon beharko da eta Protektoratuak erabakia berretsi beharko du.

Desegiteari buruzko akordioa ondo arrazoituta egongo da, ondare-egoera eta likidazio programaren egoera adierazita.

Gobernu organoa ados jarriko ez balitz, edo Protektoratuak ez balu berretsiko, Fundazioa desegiteko ebazpen judizial arrazoitua egin beharko da. Hala badagokio, Protektoratuak edo Sortzaileak eskatu ahal izango du.

Desegite-akordioa edo ebazpen judizial arrazoitua Fundazioen erregistroan inskribatuko da.

37. Artikulua.- Desegite-prozedura

Aurreko artikulua 1. eta 2. ataletan aurreikusitako kasuetan, Fundazioa desegiteko Patronatua ados jarri beharko da, eta, edonola ere, Protektoratuak erabakia berretsi beharko du.

Desegiteari buruzko akordioa ondo arrazoituta egongo da, ondare-egoera eta likidazio programaren egoera adierazita.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

Gobernu organoa ados jarriko ez balitz, edo Protektoratuak ez balu berretsiko, Fundazioa desegiteko ebazpen judizial arrazoitua egin beharko da. Hala badagokio, Protektoratuak edo Sortzaileak eskatu ahal izango du.

Desegite-akordioa edo ebazpen judizial arrazoitua Fundazioen erregistroan inskribatuko da.

38. Artikulua.- Likidazioa.

Fundazioaren likidazioaren ondoriozko ondasun eta eskubideak Patronatuak erabakitako interes orokorreko helburuetara bideratuko dira. Egingo ez balu, antzeko helburuak dituzten Fundazio edo Erakundeei bideratuko dizkie Protektoratuak, ahal dela, udalerrri berekoak edo Lurralde Historiko berezkoak.

V. TITULUA.

PROTEKTORATUA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

39. Artikulua.- Protektoratua

Fundazio hori Protektoratuaren tutoretza, aholkularitza eta kontrolaren mende geratzen da, indarreko Legeetan aurreikusitakoaren arabera.

40. Artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazio hau dagokion Erregistroan inskribatuko da, Legearen arabera, baita beren baitako negozio edo ekintza guztiak ere, beharrezkoa bada.



FUNDAZIOA

ATHLETIC CLUB FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

VI. TITULUA

FUNDAZIOAREN KOLABORATZAILEEN ERREGIMEN JURIDIKOA

41. Artikulua.- Atxikitako laguntzaileak

Fundazioarekin bat egiteko Eskritura eman ostean, fundazio-helburuak betetzen lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridikoek kolaboratzaile gisa bat egin ahal izango dute.

Kolaboratzaile gisa aritzeko eskaerak Patronatuko kideen gehiengoak onartu beharko ditu eta haiek zehaztuko dute zein ekarpen ekonomiko egin beharko duten hautagaiek. Kolaboratzaileek Patronatuan parte hartu ahal izango dute, horrek hala erabakitzen badu. Patronatuak Nagusi izendatutako kolaboratzaileak hautaketa bidezkoak izango dira, estatutuen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

42. Artikulua.- Ohorezko kolaboratzaileak

Patronatuak ohorezko kolaboratzaile izendatuko ditu fundazio-helburuen lorpenean ekarpen nabarmenak egin dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.



FUNDAZIOA